Rotonda arriskutsua

Uda hasieran egin zenetik, Amara eta Loiola lotzen dituen saihesbideko rotonda berriak ez du zer esan gutxi eman.

Rotonda honetan nabarmena da oinezkoek duten arriskua. Espaloirik eta ertzerik ez dagoen tarte horretan, Amaratik datozen kotxeak ondo-ondotik pasatzen baitira ziztu bizian. Arrisku hau gauean areagotu egiten da autopista azpian oso argi gutxi dagoelako.

Kotxe gidariek ere ez daude oso kontentu, Amaratik Loiolarako norabidean oso poliki joan ezean, konturatu gabe beste karrilera pasatzen direlako. Hori dela medio, kolpe batzuk ere izan omen dira istripu larririk ez izan arren.

Guzti honengatik, «Urumea ibaia» auzo elkarteak arazo hau konpontzeko eskatu dio Udalari. Honek emandako azalpena zera izan da: behin-behinekoa dela egungo trazaketa; hau da, Plan Orokorrak aurrikusten duenez, oraingo errepide korapiloa desegin egingo da, Loiolako erriberetan (22. poligonoa) auzo berri bat eraikitzeko, kale eta errepide sare berria izango duena. Honi erantzunez, rotondaren arazoa behin-behinekoa bada, behin-behineko konponbidea eskatzen du auzo elkarteak.



Rotonda honetan nabarmena da oinezkoek duten arriskua. Kotxe gidariak ere, Amaratik Loiolarako norabidean oso poliki joan ezean, konturatu gabe beste karrilera pasatzen dira.

Aldi berean auzo elkarteak, Hernani eta Donostia lotuko dituen Urumeako autobidearen proiektuari aurkeztutako tunelaren alternatiba aztertzeko eskatu die erakundeei.

AITOR OIARBIDE (TFNOA.: 458038)

altza

Gazte-Lekuan ospatu dira dagoeneko aurtengo ikasturterako antolatu diren lehen txapelketak. Urriaren 16tik 20ra bitartean futbolin eta ping-pong zaleak elkartu ziren Gazte Lekuan arratsaldeko 18.00etatik aurrera. Ikusgarria bi Javi-ek, Silviak eta Kabak egindako lana.

Kale-Hezitzaileak hasiak dira inguruetako gazte guztientzat ekintzak antolatzen. Besteak beste, ikasturte honetarako olinpiada antzeko joku bat asmatu dute: Altzako gazte taldeek zuzenean joku bat prestatu beharko dute gero beste gazteek praktikan jar dezaten. Hori dela eta, Kale-Hezitzaileek auzoko gazte guztiei zabaltzen diete deia joku honetan parte har dezaten. Hala nahi izanez gero, deitu 35 37 34 telefonora.

San José de Calasanz ikastetxeko ikasleek urtean zehar egindako lanen erakusketa ikusteko aukera duzue Casares Kultur Etxean. Urriaren 24ra arte duzue zabalik.

Erakusketa honen ordutegia astelehenetik ostiralera arratsaldeko 17.00etatik 20.30etara da, larunbatetan berriz 10.00etatik 13.00etara.

LARRAITZ GARMENDIA (TFNOA.: 391267)

AINHOA taberna
• Pintxoak eta kazuelitak
Sarroeta 90, MARTUTENE

• Elektrika Blend Sistema
• Makilaia Iraunkorra
• Azkazal Labratuak
• Betile Tindaketa...
ana
Zedro plaza 2 • DONOSTIA • Tfnoa.: 392051
Nagusia 27 • LASARTE • Tfnoa.: 371891